

**2009KO MAIATZAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO APARTEKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Laua

HILABETEA: Maiatza

URTEA: Bi mila eta bederatzi.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Malu Valles Fernandez
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- Manuela Uranga Segurola
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA:

- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Ana María Crespo Blanco
- Julene Hidalgo Pérez

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

GOIEKI. GOIEKI, S.A.ren Estutuen aldaketa onartzea.

Alkateak proposamenaren berri eman du, hau da:

“Kontuan izanik :

1.- GOIEKI, S.A.k egindako proposamena, Sozietatearen Estatutuak aldatzeko,

2.- “Mankomunitate eta beste elkarte-antolakuntzen eraketa, aldaketa edota desegitea, nahiz beraiei atxikitzea eta beraien Estatutuak onartzea eta aldatzea, Udalbatza Osoari dagokiola gehiengo absolutuarekin hori onartzea,

Alkatetza honek, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio :

Lehenik. “GOIERRIKO EKIMENA, S.A.”ren ondorengo Estatutuen aldaketa onartzea. Aldaketa, 2. eta 15. artikuluei ondorengo gehitzean datza:

“2. Artikulua

Elkartea, dituen interes publikoko helburu soziala eta akziodunen kalitateagatik, irabazi asmorik gabekoa aitortzen da. Elkartek jaso litzakeen irabaziak, orotara, xede soziala betetzeko erabiliko lirateke.”

“15. artikulua

Ekitaldi bakoitzetik lorturiko irabazietatik, guztia helburu sozialerako erabiliko da, behin erreserba legalerako hornidurak eta legeak ezarritako baldintzak bete eta bazkide akziodunek mozkinen banaketari uko eginda.”

Bigarren. Erabaki honen berri, aipatutako Sozietatearen Akzionisten Batzar Orokorrari ematea.”

Jarraian adierazi du, estutuak aldatzeko arrazoia ondorengo dela:

Dirulaguntzak eskatu ahal izateko beharrezkoa da adieraztea, GOIEKI irabazi asmorik gabeko sozietatea dela.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.